

Limia ibaia

Galiziakoa da kondaira. Ourenseko hegoaldeko haran batekoa. Ez Portugal ez Espainia ez zen garai hartan, mugarririk ibaiak izango ziren askotan. 137 urte Kristo aurretik, erromatarrek penintsula osoa bereganatu nahian zebiltzan. Han omen zihoazen Erromako gudarosteak hegoaldeko iparralderantz mendiko kaskoak aisa gaudituz eta herri kokorretako biztanleak menpean hartuz. Otsoen ulu sarriek ere ez zituzten ikaratzen, hain ziren borrokan zailduak. Harik eta ibai baten ertzera heldu ziren arte. Bazen Erroman kondaira bitxi bat Lethes ibaiaren inguruko, eta Galizian ere antzeko batekin egin zuten topo. Ibai hura gurutzatzen ausartzen zenak memoria galtzen omen zuten total.

Limia du ibaiak izena. *El río del olvido* deitu zioten oso gerora espainiarrek. *Orio de Esquecimento* deitzen diote oraindik ere bertako biztanle askok. Guk, *Ahanturaren ibaia* edo deituko genioke. Kondairak dio legio har-

tako gudariek atzera egin zutela ibai ertzera iristean, Limia gurutzatuz gero burua galtzearen heldur baitziren. Décimo Junio Bruto zen gudarostearen buru, eta bere gizonena siniskeria hutsa zela frogatzeko, berak bakar-bakarrik gurutzatu zuen ibaia.

Arro batean abiatu bere orduko armadura burdinazko zamatsuekin, eta nekez iritsiko zen bestera. Baina beste aldera heltzean, banan-banan izendatuz egin zien dei mutilei. Gudariek, nagusiak memoriari gogor eusten ziola jabetzean, segitu egin zioten, eta konkistari ekin indarberriturik. (Askotan pentsatu izan dut buruan konkista duenak benetan memoria galarazten duen ibaiaren bat zeharkatu behar lukeela zertan ari zen ahazteko ere).

Aspalditxo idatzi zuen norbaitek ez gabela garena, gogoratzen duguna baizik. Memoriaren sona gainbehera joana zen azken berrogei bat urtean, irakaskuntzan egindako urratsen ondorioz. Gu ere «gauzak ulertu egin behar dira, eta ez buruz errepikatu loritoen gisan» goiburupean

Plazatik

Andoni Egaña



Memoria historikotzat jotzen den horrek ere indar hartu du, zauriak, ondo itxi ezean, zornetzeraz jotzen baitu

haziak gara zorionez. Baina hori memoriarekiko ikuspegi bat zen. Bakarra eta murritzaila. Gerora etorri da memoria aldarrikatzeko moduko bestelakorik ere. Orain, memoria irudimena oinarritzko tresnatzat ere jotzen da, inork ez baitu ezer hutsetik sortzen, bizipenen berrirakurketa interesatu batetik baizik. Memoria sortzailea bada, beraz.

Eta memoria historikotzat jotzen den horrek ere indar hartu du, zauriak, ondo itxi ezean, zornetzeraz jotzen baitu, eta ez baitu oso segurik zauriak sendatu gabeko hark, eta ez baita justiziarik sekula, min eman izana norbaitek onartzen ez badu. Horregatik da garrantzitsua gerra zibil garaiko gorpu desagerrarazitako haien nondik norakoak ikertzea. Eta gerora izan diren biktimekiko ere jarrera bertsua behar genuke: gogora ekarri, izendatu banan-banan, ibaiaren beste aldera iristeko zortea izan dugunok.

Ume jaioberria hiltzat eman eta urte mordo batean pena hori barruan mamitu eta mamutu duenak ere memoria du maitasunaren euskarri. Gogoan du ze ordutan jaio zen; gogoan, zenbaterako pisua zekarren; gogoan, haren aurpegiera ikusteko zoria

izan zuen une laburra. Ez du inoiz burutik kendu han zerbait gertatu zen susmo mingarria. Eta orain, hobiak zabaltzen hasi direnean eta hutsik agertu, lehen barruan bilatzen zuen hura kanpoan bilatzen hasteko nahia sentitu du. Ume horiek ere —eta euren gurasoak— izendatu behar genituzke, banan-banan. Haiek euren amei kendu eta beste batzuri saltzen aritu zirenek, berriz, ez dute izenik.

Laurden bat euskalduna, erdia galiziarra eta osoki espainiarra zen hark bazuen izena: Manuel Fraga Iribarne. Décimo Bruto erromatarrekiko traza ez zuen izenaren bakarrik. Bruto Limiako urak zeharkatzen bezala ikusi ahal izan genuen Fraga Palomaresko hondartzara joan eta uretan sartuz. Brutok bere legioko gizonei memoria ez zuela galdu frogatu nahi izan zien. Fragak munduari ur haiek ez zeudela isuri erradioaktiboz kutsatuak. Hil da ohean, eta horrek bai ez daukala atzerabueltarik. Hobe zuken Manuelek ere itsasoa ahaztu eta Limiako uretan sartu izan balitz. Memoria galdu ez, eta izenak esaten hasi, banan-banan. Bere agintean atxilotutako, torturatutako eta hildakoen izenak.

Txillardegia, ekologista eta antitaurinoa

Txema Ibarburu Arotzena

Donostiako Eguzki

Txillardegia pieza bakarreko gizona izan da, dudarik gabe. Baina bat eta bakarra izan den arren, bere baitan Txillardegia asko izan ditu, matrioskek bezala. Horra hor Txillardegia abertzalea, Txillardegia literaturgilea, Txillardegia hizkuntzalaria... betiere Txillardegia euskaltzalea. Zorionez, Txillardegia horien guztien bertute eta ekarpenak ederki gogoratzen ari gara egunotan lagun eta adituen idatziei esker. Bideberetik, guk ere, lerro xume hauen bitartez, bertatik bertara ezagutu dugun Txillardegia bat gogorazti nahi dugu, Txillardegia ekologista eta animaliazalea, alegia.

Txillardegik garbi ikusten zuen «naturaren sarraski hazkorrik gizadia bera arriskuan jartzen duela»; horregatik, «errotikako ekologismoaren behar gorrira dagoela» pentsatzen zuen (*Euskal Herria helburu*, 1994). Baina, ezaguna denez, Txillardegia bat eta bakarrean, pentsamenduzko gizona eta ekintzazko gizo-

na banaezinak dira. Horregatik, pentsatu ez ezik, ekologistok antolatutako ekintzetan ere parte hartu ohi zuen. Zaborren behar bezalako kudeaketaren aldeko edota Abiadura Handiko Trenaren kontrako manifestazio jendetsuetara joaten zen, baina baita askoz ekintza xumeetara ere. Gogoan dugu, esaterako, Caudilla kondearen parkea izandakoaren babesa eskatzeko egin genuen kanpaldi hura. Txillardegia eta Jone izan ziren beterranoenak, jakina. Gogoan dugu, halaber, Berrioko artea bota nahi zutela eta, luzatu zigun eskua, «espanturik gabe», esan eta egin ohi zuen bezala.

Badira beste adibide batzuk, noski, baina Caudilla kondearen parkea (gaur egun, Zubimuxu) eta Berrioko artea berezikiki ekarri nahi izan ditugu gogora Txillardegiren haurtzaroko aberrian gertatu zirelako, Antiguan, alegia.

Baina gatozen berriz harira. Ekologista ez ezik, animaliazalea ere izan da. Markos Zapianek nabarmendu duenez (*Txillardegia eta ziminoia*, 2007), Txillardegik bere lehen ipuinean bertan, *Orangutanen ugarte* izenburukoan, azaldu zuen lehen aldiz

(1957an!) ondoren behin baino gehiagotan azaldu duen kezka bat: gizakia zein puntutaraino bereizten den ziminoarengandik eta, oro har, gainerako animalieingandik. Kezka horren ondorioz, bere liburuetan sufritzen ari diren animaliekiko eruki nabarmena erakutsi du beti. Izan ere, egunotan behin baino gehiagotan irakurri dugu Txillardegia humanista zela, eta egia da. Baina bere humanismoa ez zen gizakia eta soil-soilik gizakia unibertsuaren zentroan ipintzen duten tankerakoa. Txillardegiren ustez, hori humanismoa baino gehiago «antropokeria» zen. Horregatik ezin zuen animalien tortura jasan, eta, ohi bezala, pentsamendua eta ekintza batu zituen: Donostian zezen-plaza berriz ere eraiki behar zutela esaka hasi ziren une beretik antitaurino militantea izan zen. Aste Nagusiko manifestazioetan parte hartu izan du, eta pankartari heldu behar izan dionean, heldu egin dio, «espanturik gabe».

Jose Luis, jaso gure txalorik sentituena, eta badakizu, ezagutzen gaituzulako, gu ez gabela txaloak merke egiten dituztenetakoak. Etxekoiei, berriz, besarkada bana.

Duintasuna

Inazio Agirre

Ezker abertzaleko kidea

Altsasun eta Iruñean, 6.600 euroren isunak jarri dizkiete EHEko laukideri. Errepideko seinaleak ezabatzeagatik eta desobedientziagatik, foruzainek gaztelaniaz erantzutuko eskatuta, euskaraz egiteagatik. Nafarroako administrazioa hizkuntza eskubideen urraketa larria eragiten ari da. Nork bere herriko hizkuntzan bizitzea eskubide unibertsala da. Nafarroan, hizkuntza paisaia, irakaskuntza eta komunikabideak euskaraz izatea, besteak beste, euskaraz ikastea eta erabiltzea bermatzeko Euskal Herri osoan. Horrek eskubide unibertsalen legitimazioa du; legea eta politika kontra baldin badaude ere. Elkartasuna, beraz, EHEko kideei.

Pertsonak, hizkuntzak eta herriak berdinak gara duintasunarekin. Berdintasunezko tratamendua eskatzen dugu. Euskarak espainiarerak eta frantsesak dituzten tresna berak izatea: burujabetasun politikoa, ekonomikoa eta kulturala.

Espainiak eta Frantziak, ordea, hizkuntzen arteko hierarkiazio-subordinazio harremanak

ezartzen dituzte. [...] Euskara desagerrarazi eta menderatu ondoren Euskal Herriko eremu zabalean, kalte-ordain historikoa zor zaito euskaldunen herriari; nafarren hizkuntzari. Eta ezin onartuzkoa da, orain, herri gogoia zapaltzea, hizkuntza berreskuratzea eragozte, bere lurraldean.

Ergelkeriak edo faxismoak bakarrik jo dezakete hizkuntza aniztasunaren aurka; uniformatze unibertsalaren alde. [...] Bio espezieak galtzea bezala, hizkuntzak galtzea ere denon kalterako da. Gizateriak sortu duen aniztasun soziokulturala eta linguistikoa galtzea kulturen memoria eta jakinduria galtzea da. [...] Galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen arazoa mundiala da: giza espeziearen problema, unibertsala. Ez da euskaldunen edo katalanen arazo soil. Euskaldunok unibertsuaren zati bat gara, eta unibertsu horrek bereizitasun bat du Euskal Herrian, testuinguru orkatzailea behar duena. Euskaltasunak egiten baitu munduko.

Hunkigarrria da Nafarroa osoan, Euskal Herriko hainbat lekutan, herriarrak euskaraz bizitzea egiten ari diren duintasun erakustaldia. Herri gogo horrek berpiztuko du euskara, eta Txillardegiren izarrak argituko du Euskararen Herria berrezartzeko bidea.